

### 3. ARTIKULUA.– ZUZENDARIAREN ESKUMENAK

- a) **Ikastetxearen ordezkari** izatea, ikastetxean hezkuntza-administrazioa ordezkatzeko, eta administrazio horri hezkuntza-komunitatearen planteamenduak, asmoak eta premiak helaraztea.
- b) **Ikastetxeko jarduera guztiak zuzentzea eta koordinatzea**, irakasleen klaustroari eta ikastetxeko ordezkari organo gorenari (OOGa) esleitutako eskumenak eragotzi gabe.
- c) **Zuzendaritza pedagogikoa** gauzatzeko, hezkuntza-berrikuntza sustatzea eta ikastetxearen hezkuntza proiektuaren helburuak lortzeko planak bultzatzea.
- d) Legeak eta indarrean diren gainerako **xedapenak betetzen direla bermatzea**.
- e) Ikastetxeari atxikitako **langile guztien buru** izatea.
- f) **Ikastetxeko elkarbizitza** hobetzea, gatazkak konpontzeko bitartekotza bermatzea eta ikasleei dagozkien neurri zuzentzaileak ezartzea indarrean den araudia beteta, ikastetxeko ordezkari organo gorenari esleitutako eskumenak eragotzi gabe. Horretarako, ikastetxeetan gatazkak konpontzeko prozedurak arintzea sustatuko da.
- g) **Ikastetxearen eta ingurunearen arteko harremana** sendotzeko, familiekiko, erakundeekiko eta organismoekiko lankidetzak bultzatzea, eta eskola-giro egokia sustatzea, lagungarri izan dadin ikasleek ezagutzetan eta balioetan prestakuntza integrala jasotzeko eta ikasketa-ohiturak sustatzeko.
- h) **Ikastetxearen barne-ebaluazioak bultzatzea** eta kanpo-ebaluazioetan eta irakasleen ebaluazioan laguntzea.
- i) Ikastetxeko ordezkari organo gorenaren eta irakasleen klaustroaren ekitaldi akademikoetarako eta bilkuretarako deialdia egitea eta **ekitaldi horiek zuzentzea**, eta haiek beren eskumenen eremuan hartutako erabakiak betearaztea.
- j) **Obrak, zerbitzuak eta hornidurak kontratatzea**, gastuak ikastetxearen aurrekontuaren arabera baimentzea, ordainketak agintzea eta ikastetxearen ziurtapen eta dokumentu ofizialei oniritzia ematea, eta hori guztia hezkuntza-arloan eskumena duen sailak ezartzen duenari jarraituz.
- k) Hezkuntza-arloan eskumena duen sailari **zuzendaritza-taldeko kideen izendapena** eta kargu-uztea proposatzea, ikastetxeko ordezkari organo gorenari eta irakasleen klaustroari jakinarazi ondoren.
- l) **Esperimentazioa, berrikuntza pedagogikoak, hezkuntza-programak**, lan-planak, antolatze moduak eta elkarbizitza-arauak sustatzea, eta eskola-egutegia edo eremuen, arloen edo ikasgaien eskola-ordutegia zabaltzea, hezkuntza-arloko eskumena duen sailak ezartzen dituen baldintzetan eta aplikatu beharreko araudiak ahalbidetzen dituen aukeren barruan, lan-araudia barne, inolako diskriminaziorik eragin gabe, eta familiei ekarpenik edo hezkuntza-administrazioei eskakizunik ezarri gabe.
- m) Ikastetxeko **hezitzaile-taldearen kualifikazioa eta prestakuntza sustatzea**, bai eta ikerketa eta esperimentazioa eta hezkuntza-berrikuntza ere.
- n) **Ikastetxearen irakaskuntza-plangintza eta -antolamendua diseinatzea**, ikastetxeko urteko planean jasota.
- ñ) Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak esleitzen dion beste edozein.